



Birgaitzearen arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurrien araudia

Aurreko araudia eta agindu berria

AGINDU BERRIAREKIN DATOZEN ALDERDI OROKOR BERRIAK

- **Lehentasunez Jarduteko Eremuetan (LJE) kokatutako udalerrietan gauzatzen diren jardueri aplikatu ahal izango zaie Birgaitze Integratuko Eremuetarako (BIE) ezarritako finantza-neurrien araubidea..** Onurak zortzi urtez luzatuko dira, Agindua indarrean jartzen den egunetik zenbatzen hasita.
- **Partikularrei zuzendutako laguntzen ehunekoak eta gehieneko mugak bereizten dira 1. edo 2. lerroetarako laguntzak diren kasuetan.**
- Birgaitzearen xede izango den eraikinean elementu pribatibo bat baino gehiago dituzten pertsona edo erakunde onuradunek obra partikularretarako finantza-neurriak (1. lerroa) edo erkidegoko obretarako finantza-neurri indibidualak (2. lerroa) eskuratu ahal izango dituzte, baina horietako bati dagozkionak bakarrik.
- Berriaz onura publikotzat deklaraturako irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako, administrazio publikoentzako edo Etxebizitza Hutsaren Programara atxikita daudenentzako zenbatekoak.
- Laguntzen zenbatekoen ehunekoa handitu da, eta, era berean, diru-sarrereren mugak ere igo egin dira, herritar gehiagorengana heltzeko xedez.
- Irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezi berria, 65 urte baino gehiago dituzten eta/edo desgaitasuna duten pertsonentzat eta urtean 12.000 €-ra arteko diru-sarrera haztatuak dituzten bizikidetzak-unitateentzat.
- Maileguren eskuragarritasuna % 100ekoa da, eta noiznahi gauzatu ahal izango da, jarduketa babestua aitortzen duen administrazio-ebazpena jakinarazten denetik aurrera.
- Jabeen erkidegoek maileguak eskatu ahalko dituzte.



1. LERROA OBRA PARTIKULARRAK

2021eko Agindu berria – 1. LERROA		2006ko Agindua - BANAKAKO BIRGAITZEA
Eraikinaren adina	20 urte baino gehiago	10 urte
Eraikinen Ikuskapen Teknikoa	Ez da eskatuko, salbu eta Eraikinen Ikuskapen Teknikoa legez eskatzekoa den familia bakarreko etxebizitzetan edo baserrietan.	Azken 10 urteetan egindakoa eskatzen da, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa legez eskatzekoa den familia bakarreko etxebizitzetan edo baserrietan.
Lokalak birgaitzea	<p>Etxebizitzatarako direnean soilik babestuko dira, eta 90 m²-ko azalera erabilgarri konputagarria badute.</p> <p>Etxebizitzatarako diren lokaletarako dirulaguntzak kalkulatzeko sistema berria:</p> <ul style="list-style-type: none"> - birgaitze integratua: aurrekontu babesgarriaren % 25; 5.500 €, gehienez. - birgaitze isolatua: aurrekontu babesgarriaren % 20, 4.000 €, gehienez. 	<p>Birgaitze Integratuko Eremuetan dauden eta nagusiki etxebizitza izatera bideratutako eraikinetako lokalak birgaitzeko dirulaguntzen zenbatekoa honela kalkulatu da: aurrekontu babesgarria —akaberak moldatzeko partidak sartu gabe— bider % 5, salbuespen batekin: dirulaguntzaren onuraduna berariaz onura publikotzat deklaraturako irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea, betiere lokala erakundearen helburu sozialetarako erabiltzen bada. Kasu horretan, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzaren zenbatekoa % 50era igoko da, eta akaberak moldatzeko partidak hartuko ditu barnean, betiere 1., 2. eta 3. motetako obren erremate gisa egiten badira.</p> <p>Aurreko kasu horietan gehieneko muga 12.000 €-koa izango da. Horrez gain, erakundeak bere izaera eta lokalaren erabilera egiaztatu beharko ditu, estatutuak, dagokion erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen ebazpena eta lokalen erabilerari buruzko zinpeko adierazpena aurkeztuta.</p>
Gutxieneko aurrekontu babesgarria	3.000 €, irisgarritasuna sustatzeko izan ezik	1.000 €



	2021eko Agindu berria – 1. LERROA	2006ko Agindua - BANAKAKO BIRGAITZEA
Obra motak	1. mota Kontserbazioa eta bizigarritasuna. 2. mota Energia-efizientzia hobetzea. 3. mota Irisgarritasuna hobetzea. 4. mota Eraikuntzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzea.	1. mota: Egitura eta eraikuntza egokitzea 2. mota: Etxebizitzen bizigarritasun-baldintzak egokitzea. 3. mota: Etxebizitzak eta etxebizitzetarako sarbideak desgaitasunari buruz indarrean dagoen araudira egokitzea. 4. mota: Eraikuntzaren eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren irizpideetara egokitzea.
Diru-sarrera haztatuen gehieneko muga	25.000 €.	21.000 €.
Laguntzen ehunekoak eta mugak (Ikus eranskineko taula)	1. mota Kontserbazioa eta bizigarritasuna. <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua: % 40ko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte, eta % 35eko igoera, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza, 2.000 € gehiago - Birgaitze isolatua: % 45eko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte, eta % 40ko igoera 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza, 1.650 € gehiago 2. mota Energia-efizientzia hobetzea. <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua: % 45eko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte, eta % 40ko igoera, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza, 4.000 € gehiago - Birgaitze isolatua: % 50eko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte eta % 45eko igoera 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza, 3.650 € gehiago 3. mota Irisgarritasuna hobetzea. <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua: % 45eko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte, eta % 40ko igoera, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza, 4.060 € gehiago - Birgaitze isolatua: % 50eko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte eta % 45eko igoera 21.000 €-ra arte. 	1. mota <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua, % 30-35, 15.000 €-ra arte, eta % 35, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza: 5.500 €. - Birgaitze isolatua, % 15-20, 15.000 €-ra arte, eta % 10, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza: 3.850 €. 2. mota <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua, % 30-35, 15.000 €-ra arte, eta % 35, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza: 5.500 €. - Birgaitze isolatua, % 15-20, 15.000 €-ra arte, eta % 10, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza: 3.850 €. 3. mota <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua, % 35-40, 15.000 €-ra arte, eta % 30, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza: 5.940 €. - Birgaitze isolatua, % 10-25, 15.000 €-ra arte, eta % 15, 21.000 €-ra arte. Gehieneko dirulaguntza: 4.180 €.



	<p>Gehieneko dirulaguntza, 3.820 € gehiago</p> <p>4. mota Eraikuntzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua: % 40ko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte, eta % 35eko igoera, 21.000 €-ra arte. <p>Gehieneko dirulaguntza, 2.800 € gehiago</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze isolatua: % 45eko igoera aurreko araudiarekin alderatuta, 15.000 €-ra arte, eta % 40ko igoera 21.000 €-ra arte. <p>Gehieneko dirulaguntza, 1.900 € gehiago</p>	<p>4. mota</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze integratua, % 15-20, 15.000 €-ra arte, eta % 5, 21.000 €-ra arte. <p>Gehieneko dirulaguntza: 2.200 €.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze isolatua, % 5-7, 15.000 €-ra arte, eta % 2, 21.000 €-ra arte. <p>Gehieneko dirulaguntza: 1.100 €.</p>
Gutxieneko dirulaguntza	Ez dago	60 €
Familia ugariak	Ez dago ehunekoen hazkunderik	5 kide edo gehiagoko bizikidetz-unitateei edo familia ugariei dirulaguntzak ematen zaizkienean, % 5 igoko dira dirulaguntza horien ehunekoak.
Etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren alokairua sustatzeko programetan sartzea	Dirulaguntza gehigarri berria, Eusko Jaurlaritzaren alokairu-merkatura gutxienez sei urterako sartzan diren etxebizitzetarako: aurrekontua babesgarriaren % 25eko zenbatekoa gehituko da, 4.000 €-ko mugarekin.	18.000 €-ko aurrekontua, gutxienez, «Bizigune-Etxebizitza Hutsen Programan» sartzeko konpromisoa hartzen duten etxebizitzetarako, eta obra motaren araberako ehunekoak, obra motaren araberako gehienekoekin.
Irigarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezi berria	Dirulaguntza berezi hau jaso ahal izango dute: 65 urtetik gorako pertsonak eta mugikortasun murriztua edo zentzumen-desgaitasuna dutenak —beren bizikidetz-unitateekin batera—, eta, horiez gainera, urtean 12.000 €-ko diru-sarrera haztatua gainditzen ez duten bizikidetz-unitateek.	Ez dago
	Lerro honen helburua da Agindu honetan ezarritako itzuli beharrik gabeko laguntzek estaltzen ez duten —eta irigarritasunari egotz dakiokeen— aurrekontu babesgarriaren % 100era arteko ehunekoak ordaintzea.	



2. LERROA ERKIDEGOKO OBRAK

	2021eko agindu berria – 2. lerroa	2006ko Agindua - Erkidegoko birgaitze-lanak
Eraikinaren adina	20 urte baino gehiago	10 urte
Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa	EIT eginda edukitzea eskatuko da	Azken 10 urteen barruan egindako EIT
Gutxieneko aurrekontu babesgarria	3.000 € etxebizitza edo lokal bakoitzeko, irisgarritasuna sustatzeko obretarako izan ezik: hor ez da gutxieneko mugarik.	1.000 € etxebizitza bakoitzeko, 3. motako obretarako izan ezik (irisgarritasuna)
Obra motak	<ol style="list-style-type: none"> 1. mota Kontserbazioa eta bizigarritasuna. 2. mota Energia-efizientzia hobetzea. 3. mota Irisgarritasuna hobetzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. mota: Egitura eta eraikuntza egokitzea 2. mota: Etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak moldatzea. 3. mota: Etxebizitzak eta haietarako sarbideak desgaitasunari buruz indarrean dagoen araudira egokitzea. 4. mota: Eraikuntzaren eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren irizpideetara egokitzea.



	2021eko agindu berria – 2. lerroa	2006ko Agindua - Erkidegoko birgaitze-lanak
Laguntzen ehunekoak eta mugak	<p>Erkidegoarentzako dirulaguntza: Erkidegoarentzako laguntza kalkulatzeko sistema berria eta gehieneko muga berriak etxebizitza kopuruaren eta atari kopuruaren arabera.</p> <p>a) 1. mota. Kontserbazio-, segurtasun- eta bizigarritasun-obrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze isolatua: aurrekontu babesgarriaren % 40. Gehieneko dirulaguntza zenbateko apalenaren arabera kalkulatu da; 2.500 € etxebizitzako eta 25.000 € atariko. - Birgaitze integratua: aurrekontu babesgarriaren % 50. Gehieneko dirulaguntza zenbateko apalenaren arabera kalkulatu da; 3.000 € etxebizitzako eta 30.000 € atariko. <p>b) 2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egungo eraikinaren adierazle globalarekin alderatuta, CO₂ isuriak % 30 baino gehiago murriztea lortzen duten edo lor dezaketen jarduketek aurrekontu babesgarriaren % 40ko laguntza jaso ahal izango dute, 50.000 euroko gehieneko mugarekin. - Egungo eraikinaren adierazle globalarekin alderatuta, osoko isurietan % 50etik gorako murrizketa lortzen duten edo lor dezaketen jarduketek aurrekontu babesgarriaren % 50eko laguntza jaso ahal izango dute, 65.000 euroko gehieneko mugarekin. <p>c) 3. mota. Irisgarritasuna hobetzeko obrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birgaitze isolatua: Aurrekontu babesgarriaren % 40. Gehieneko dirulaguntza zenbateko apalenaren arabera kalkulatu da; 3.000 € etxebizitzako eta 30.000 € atariko. - Birgaitze integratua: Aurrekontu babesgarriaren % 50. Gehieneko dirulaguntza zenbateko apalenaren arabera kalkulatu da; 3.500 € etxebizitzako edo 35.000 € atariko. 	<p>Higiezin bateko elementu erkideen birgaitzeetan, jabeen erkidegoari zuzenean aurrekontu babesgarriaren % 5eko dirulaguntza emango zaio, 2.000 euroko gehieneko mugarekin, betiere Agindu honen 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, 1., 2. eta 3. motatako obrak badira.</p> <p>Dirulaguntza % 10era iritsiko da, 3.000 euroko gehieneko mugarekin, betiere kasu bereko birgaitze integralak baldin badira.</p>



2021eko agindu berria – 2. lerroa		2006ko Agindua - Erkidegoko birgaitze-lanak
Hirigintza-egokitzapena	Ez dago	Aurrekontuaren % 50eko laguntzak erkidegorako, hirigintza-egokitzapenen kasuan.
Energia-efizientzia	Bere koefiziente propioak ditu obra mota horretarako dirulaguntza kalkulatzeko.	Inguratzailerako termikoa hobetzeko laguntza kalkulatzeko koefizienteak 1. motako obrarako erabiltzen diren berberak dira.
Banakako laguntzak	Banakako laguntzak zehazteko orduan, berriz, elementu pribatiboen titular bakoitzaren parte-hartze kuotaren ehuneko aplikatuko zaio erkidegoko obretarako aurrekontu babesgarriari — behin emandako laguntza orokorrak kendu ondoren—.	Dirulaguntzak kalkulatzeko, ehuneko horiek aplikatuko zaizkio aurrekontu babesgarriari.
Diru-sarrera haztatuak	Muga berria: 25.000 €.	21.000 €.
Irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezi berria	Baremo berriak: laguntzaren ehuneko berriak eta mugak obra partikularretan. (Partikularrei zuzendutako laguntzen ehunekoak eta gehieneko mugak bereizten dira 1. edo 2. lerroetarako laguntzak diren kasuetan)	Ehunekoak eta gehienekoak txikiagoak dira, eta berdinak ziren birgaitzeak banakakoak zein erkidegokoak izan.
Gutxieneko dirulaguntza	Ez dago	60 €
Etxebizitzarako diren lokaletarako dirulaguntzak	- Jarduketa birgaitze integratuko arean denean: aurrekontu babesgarriaren % 25; 5.500 €, gehienez. - Jarduketa birgaitze isolatuko arean denean: aurrekontu babesgarriaren % 20, 4.000 €, gehienez.	Etxebizitzarako zeuden koefizienteak aplikatzen dira
Familia ugariak	Ez dago ehunekoaren hazkunderik	5 kide edo gehiagoko bizikidetzak-unitateei edo familia ugariari dirulaguntzak ematen zaizkienean, % 5 igoko dira dirulaguntza horien ehunekoak.



	2021eko agindu berria – 2. lerroa	2006ko Agindua - Erkidegoko birgaitze-lanak
<p>Irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezi berria</p>	<p>Dirulaguntza berezia jaso ahal izango dute: 65 urtetik gorako pertsonak eta mugikortasun murriztua edo zentzumen-desgaitasuna dutenek —beren bizikidetz-unitateekin batera—, eta, horiez gainera, urtean 12.000 €-ko diru-sarrera haztatua gainditzen ez duten bizikidetz-unitateek.</p> <p>Lerroaren helburua da Agindu honetan ezarritako itzuli beharrik gabeko laguntzek estaltzen ez duten —eta irisgarritasunari egotz dakioken— aurrekontu babesgarriaren % 100era arteko ehuneko ordaintzea.</p> <p>Erkidegoko obretan (2. lerroa), dirulaguntza bereziak zehazteko orduan, onuradunari jabetza horizontalaren arabera dagokion parte-hartze kuotaren ehuneko aplikatuko zaio irisgarritasunari egotz dakioken erkidegoko obretarako aurrekontu babesgarriari —behin emandako laguntza orokorrak kendu ondoren—. Oinarri horren gainean aplikatuko dira ezarritako ehunekoak eta gehieneko mugak</p>	<p>Ez dago</p>
<p>Maileguak</p>	<p>Maileguen eskuragarritasuna % 100ekoa izan ahalko da, eta noiznahi gauzatu ahal izango da, jarduketa babestua aitortzen duen administrazio-ebazpena jakinarazten denetik aurrera.</p>	<p>Formalizatzearekin batera, maileguaren % 50 jaso ahal izango da gehienez ere. Maileguaren gainerakoa obrak egiteko erritmoaren arabera egokituko da, eta ,hori lortzeko, kreditu-establezimenduan aurkeztu beharko dira dagozkion obra-egiaztagiriak, aurretiaz dagozkion lurralde-ordezkaritzak adostutakoak.</p>

Adibide praktikoak

Etxebizitza birgaitzea 1. lerroa – Obra partikularrak

	Birgaitze mota	Aurrekontu babesgarria	Bizikidetzak-unitatea	Jarduketa mota	1. lerroko laguntza, 2021eko Agindua		Banakako laguntza, 2006ko Agindua	
					%	€	%	€
1. kasua	1. mota (Egitura / Bizigarritasuna)	5.000 €	2 kideko BU, 20.000 €-ko diru-sarrera haztatuak	isolatua	% 50	2.500 €	% 10	500 €
				Integratua	% 60	3.000 €	% 25	1.250 €
2. kasua	2. mota (Energia-efizientzia)	11.000 €	4 kideko BU, 14.000 €-ko diru-sarrera haztatuak	isolatua	% 70	7.500 €		
				Integratua	% 80	8.800 €		
3. kasua	3. mota (Irisgarritasuna, Egokitua)	10.000 €	2 kideko BU, 20.000 €-ko diru-sarrera haztatuak	isolatua	% 55	5.500 €	% 15	1.500 €
				Integratua	% 65	6.500 €	% 30	3.000 €
4. kasua	4. mota (Akabera)	6.000 €	2 kideko BU, 14.000 €-ko diru-sarrera haztatuak	isolatua	% 55	3.000 €	% 5	300 €
				Integratua	% 65	3.900 €	% 20	1.200 €

Birgaitzea 2. lerroa – Erkidegoko obra 10 etxebizitzako eraikina, etxebizitza bakoitzaren parte-hartze kuota % 10

	Birgaitze mota	Aurrekontu babesgarria	Laguntza mota	Jarduketa mota	2. lerroko laguntza, 2021eko Agindua		Erkidegoarentzako laguntza, 2006ko Agindua	
					%	€	%	€
1. kasua	1. mota (Egitura)	70.000 €	Erkidegoarentzako laguntza	isolatua	% 40	28.000 €	% 5	2.000 €
				integratua	% 50	35.000 €	% 10	3.000 €
			4 kideko BU, 20.000 €-ko diru-sarrerak	isolatua	% 35	1.470 €	% 15	1.050 €
				integratua	% 45	1.575 €	% 30	2.100 €
2. kasua	2. mota (Efizientzia)	150.000 €	Erkidegoarentzako laguntza	murrizketa >%30	% 40	50.000 €	% 30	30.000 €
				murrizketa >%50	% 50	65.000 €	% 50	45.000 €
			4 kideko BU, 20.000 €-ko diru-sarrerak	isolatua	% 40	4.000 €	% 15	2.250 €
				integratua	% 50	4.250 €	% 30	4.500 €
3. kasua	3. mota (Irisgarritasuna)	90.000 €	Erkidegoarentzako laguntza	isolatua	% 40	30.000 €	% 5	2.000 €
				integratua	% 50	35.000 €	% 10	3.000 €
			4 kideko BU, 20.000 €-ko diru-sarrerak	isolatua	% 40	2.400 €	% 20	1.800 €
				integratua	% 50	2.750 €	% 35	3.150 €



ERANSKINA – ALDERATZE-TAULA 1. LERROA

Diru-sarrera haztatuak	Kide kopurua	1. motako obrak:			2. motako obrak:			3. motako obrak:			4. motako obrak:	
		2021eko A. 1. lerroa	2021eko A. 2. lerroa	2006ko A.	2021eko A. 1. lerroa	2021eko A. 2. lerroa	2006ko A.	2021eko A. 1. lerroa	2021eko A. 2. lerroa	2006ko A.	2021eko A. 1. lerroa	2006ko A.
9.000 €-ra arte	3 edo gutxiago	I: % 75 A: % 65	I: % 55 A: % 45	I: % 35 A: % 20	I: % 75 A: % 70	I: % 55 A: % 50	I: % 35 A: % 20	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50	I: % 40 A: % 25	I: % 60 A: % 50	I: % 15 A: % 7
	3 baino gehiago	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50	I: % 40 A: % 25	I: % 80 A: % 75	I: % 60 A: % 55	I: % 40 A: % 25	I: % 85 A: % 75	I: % 65 A: % 55	I: % 45 A: % 30	I: % 65 A: % 55	I: % 20 A: % 10
9.001 €-tik 15.000 €-ra	3 edo gutxiago	I: % 70 A: % 60	I: % 50 A: % 40	I: % 30 A: % 15	I: % 75 A: % 65	I: % 55 A: % 45	I: % 30 A: % 15	I: % 75 A: % 65	I: % 55 A: % 45	I: % 35 A: % 10	I: % 65 A: % 55	I: % 20 A: % 5
	3 baino gehiago	I: % 75 A: % 65	I: % 55 A: % 45	I: % 35 A: % 20	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50	I: % 35 A: % 20	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50	I: % 40 A: % 25	I: % 60 A: % 50	I: % 15 A: % 7
15.001 €-tik 25.000 €-ra (*)	3 edo gutxiago	I: % 60 A: % 50	I: % 40 A: % 30	I: % 25 A: % 10	I: % 65 A: % 55	I: % 45 A: % 35	I: % 25 A: % 10	I: % 65 A: % 55	I: % 45 A: % 35	I: % 30 A: % 15	I: % 55 A: % 45	I: % 5 A: % 2
	3 baino gehiago	I: % 65 A: % 55	I: % 45 A: % 35	I: % 30 A: % 15	I: % 70 A: % 60	I: % 50 A: % 40	I: % 30 A: % 15	I: % 70 A: % 60	I: % 50 A: % 40	I: % 35 A: % 20	I: % 60 A: % 50	I: % 10 A: % 5
Gehienez		I: 7.500 €	I: 7.500 €	I: 5.500 €	I: 9.500 €	I: 9.500 €	I: 7.500 €	I: 10.000 €	I: 10.000 €	I: 9.500 €	I: 5.000 €	I: 2.200 €
		A: 5.500 €	A: 5.500 €	A: 3.850 €	A: 7.500 €	A: 7.500 €	A: 5.500 €	A: 8.000 €	A: 8.000 €	A: 7.500 €	A: 3.000 €	A: 1.100 €

(*) 21.000 € 2006ko Aginduarekin